

# HERRITARREN SEGURTASUNERAKO LEGEA

## HERRI MUGIMENDUAREN AURKAKO NEURRIGABEKERIA

Jorge Fernandez Diaz Barne Ministroak Herritarren Segurtasunerako Lege aurreproiektua modu ofizialean aurkeztu zuen 2013ko azaroaren 29an. Ministerioaren arabera, lege honek *“eskubide eta askatasun publikoak hobeto finkatuko ditu, herritarren segurtasuna hobeto bermatu eta legez kanpokoak, indarkeriazkoak zein izaera bandalikoak duten jokaerak galaraziko du”*.

Kritikak berehala agertu ziren, eta ez ziren izan lege honen jomugan dauden herri mugimenduek eginikoak soilik. Europako Kontseiluak legea *“neurritz kanpoko”* zela esan eta *“kezka larria”* adierazi zuen. Espainiako Estatu erakunde horretako kidea da, Europako beste 45 estaturekin batera. *“Lege hau kaleko protesta eta kritika kriminalizatzeko izugarritzko zentzugabekeria atzerakoi eta kontserbadorea da”*, esan zuen Joan Queralt Bartzelonako zuzenbide penaleko katedratikoak. *“Jendeak uste dezakeena baino arriskutsuagoa da, eta berehalako ekintzarako arma ikaragarria”*, adierazi zuen Alvaro Garcia Fiskalen Batasun Progresistako lehendakariak. Legea *“behargabekoa, errepresiboa eta desegokia”* dela aipatu zuten Demokraziarako Epaileak eta Abokatu Progresistak elkarteetako ordezkariak.<sup>1</sup> Martxoan, Botere Judizialaren eta Fiskalaren Kontseiluek, urrenez urren, txostenak osatu dituztela jakin izan dugu, aurreproiektuaren artikuluetako batzuk inkonstituzionaltzat joz. Edozein modutan, bi Kontseilu hauek salatutako artikuluek ezabatuta ere, oinarria berdinean lirauke.

Nolanahi ere, eskubide zibil eta politikoen praktika arautu nahi duen lege bat arreta handiz aztertu behar du gizarteak, kasu honetan bezala, eta batez ere gizartearen baitan norbanako zein kolektibo modura adierazteko eskubide horiek ezinbestekoak direla uste dugun pertsonak. Gure ustez, Lege aurreproiektu honek dakarren larritasuna ez dugu oraindik guztiz ulertu. Testu honen bitartez Lege aurreproiektua hobeto ezagutaraztea dugu helburu. Horretarako ikuspuntu kritiko batetik aztertu dugu, eta amaieran, hurrengo urteetan bizi arazi nahi duguten gizarte ereduari eragiten dion testuinguru zabalago batean kokatu dugu.

### “Beharrezkoa, onuragarria eta egokia” al da Lege hau?

Hori dio Barne Ministerioak. Legea Ruiz Gallardonek zuzentzen duen Justizia Ministerioak prestatu duen eta Diputatuen Kongresuak tramitean duen Zigor Kode berrira moldatu ahal izateko da beharrezkoa. Onuragarria, aldiz, *“argi eta garbi bermez beteriko eta herritarren eskubideen aldeko proiektua”* delako eta 1992tik gertatutako aldaketa *“sozial eta teknologikoei”* erantzuten dielako (urte horretan egun indarrean dagoen Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoa onartu zen): *“gure gizarteak aldaketa nabarmenak izan ditu (...) eta kontuan hartu beharreko portaera antisozial eta indarkeriazko jarrera berriak agertu direla ikusi dugu”*.

Badira gizartearen pertzepzio zein beharrezkotasun horrekin ados ez daudenak ere. 2013. urteari begira datu hauek nabarmendu ziren: kriminalitatea %5 gutxitu zen; poliziaren efikazia %1,5 handitu zen; Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CIS) arabera, herritarren segurtasuna espainiarren kezka nagusien zerrendatik desagertu zen; poliziaren presentzia izan zuten 6.000 manifestazio egin baziren ere, polizia-indarkeria erabiltzea 18 kasutan baino ez zen erabili behar

1 [http://politica.elpais.com/politica/2013/11/30/actualidad/1385838878\\_128194.html](http://politica.elpais.com/politica/2013/11/30/actualidad/1385838878_128194.html)

izan. Datu horiek aipatu ostean ondorioekin jarraitzen zuen: *“Espainian ez dugu sekula orain baino manifestazio gehiagorik eta aldi berean indar polizialen ekintza-behar gutxiagorik izan (...) Uste dut horrek bi gauza uzten dituela agerian: bizikidetzaren alde herritarrek erakutsi duten errespetua eta ardura, eta uste dut hori azpimarratzeko modukoa dela”*. Azkenik, honakoa nabarmentzen zuen: *“Segurtasun objektibo eta subjektiboaren hobekuntza gertatu da. Herritarren Segurtasunerako Legea ez da inolaz ere herritarren eskaera baten erantzuna. Guztiz kontrakoa baizik”*. Esaldi eta datu horiek Ignacio Cosido Poliziaren Zuzendari Nagusiak eman zituen 2013ko abenduaren 29an, Madrilén, amaitzear zegoen urtearen balorazioa egiteko prentsaurreko batean (jarraian, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak lapsus bat izan zela esan zuen, zuzendaria Segurtasun Pribatuaren Legeaz ari zela, eta ez Hiritarren Segurtasunerako Legeaz. Nolanahi ere... arrazoiketa berdin-berdin da “txukun-txukuna”, ezta?).<sup>2</sup>

Torturaren Prebentziorako Koordinakundeak, aldiz, kontrako muturrean dauden gertaerak salatzen ditu: *“txostenek argi utzi duten moduan, 2011 eta 2012 urteetan areagotu egin dira gizarte-protestetan jazotako gertaeren harira egindako salaketak. 2012ko txostenean jazotako 288 gertakarietan erasoak pairatu zituzten 851 pertsonetatik, 102 egoera gizarte-mobilizazioak ziren (okupazioak, protesta ekologistak, sindikalak, auzokoak, etab) eta 591 pertsonengan eragin zuten. Beraz, txosten honek aurkezten dituen eraso guztien %69,9 gizarte-mobilizazioekin lotuta dago”*.<sup>3</sup> Aurreproiektu honen berri izan aurretik, antzeko beharrak azpimarratzen zituen 2013ko urrian Europako Giza Eskubideen Komisarioak argitaratutako txostenak ere. Txosten horrek *“Espainiako maila guztietako erakundeak behartu egiten ditu segurtasun indarrek eginiko tratu txarrak eta gehiegikeriak modu sendo eta publikoan salatzea”*; eta beste kontu batzuen artean honakoak aipatzen ditu: *“Erakundeek segurtasun indarren jarrera diskriminatzaileari (arrazari dagokionez) aurre egin beharko liokete”*; *“manifestazioen testuinguruan legea betetzeko ardura duten agenteen neurriko indarkeriari buruzko arau argi eta lotesleak lehenbailehen hartzeko eskatzen die Espainiako erakundeei, baita jaurtigaiak botatzen dituzten armen erabilerari buruzkoak ere”*; *“legea betetzeko ardura duten agenteak modu errazean identifikatzea bermatzea ezinbestekoa da”*; eta *“manifestazioen testuinguruan legea betearazteko ardura duten erakundeek burutzen dituzten ekintzek adierazpen askatasunerako eta modu baketsuan biltzeko eskubideak hurtasen ez dituztela egiaztatzeko eskatzen die erakundeei”*. Besteak beste.<sup>4</sup>

## Errepresio gutxiagoko lege bat?

Modu horretan aurkeztu zuen Jorge Diaz ministroak eta horrela ageri da legearen aurkezpenean: *“...hainbat jarrera ez dira jada eremu penalean zigorgarriak eta administrazio eremura igarotzen dira, eta, beraz, Zuzenbide penala jarrera larrienerako gordetzen da (jurisprudentziak errepikatu egiten du Zuzenbide penala zigor Zuzenbidearen azkenengo ratioa dela).”*

Baina “argudiaketa” horrek hainbat eragozpen ditu. Alde batetik, eremu penaletik administrazio eremura egiten den aldaketa horren eraginez, errepresioa jasotzen duen pertsona babesgabetasun egoera handiagoan gelditzen da. Ustez legez kanpo egin duenaren eta horrek suposatzen duen zigorraren balorazioa ez da inolako auzitegi edo epaileren aurretik igarotzen.

2 [http://politica.elpais.com/politica/2013/12/17/actualidad/1387283926\\_218608.html](http://politica.elpais.com/politica/2013/12/17/actualidad/1387283926_218608.html)

3 <http://lists.kaosenlared.net/territorios/item/74213-22-y-23-de-noviembre-sevilla-jornadas-sobre-la-criminalizaci%C3%B3n-de-la-protesta-social-y-las-estrategias-de-resistencia-ciudadana.html>

4 <https://wcd.coe.int/com.instranet.InstraServlet?command=com.instranet.CmdBlobGet&InstranetImage=2356738&SecMode=1&DocId=2056532&Usage=2>

Poliziak zuzenean hartzen duen erabakia da, inolako bitartekaririk gabe. “*Ematen du Gobernuak ez duela konfiantzarik epaileen erabakietan, eta hainbat jarrera muturreko diskrezioarekin eta zehaztu gabeko kontzeptu juridikoen bitartez zigortzeko ahalmena beretzat hartu nahi duela*”, esan zuen Joaquim Bosch Demokraziarako Epaileak elkartearen bozeramaileak (hala ere, argi gera dadila guk ez ditugula epaileak eta auzitegiak inolako justiziaren bermetzat hartzen). Kritika horren aurrean, Barne Ministroak gogorarazi zuen nahi duen edonork jo dezakeela epaitegietara edozein isunen aurka errekurtsua aurkeztera. Ez zuen gogorarazi nahi izan, ordea, Gobernuak berak onartutako Tasen Legeak biderkatu egin duela lehendik ere garestia zen prozedura hori.

**Irabaziz galdu. Isun baten errekurtsu baten adibidea:** etxera 500€-ko isun bat iritsi zaigu, eta errekurtsua jarri nahi dugu. Abokatuaren elkargoek gomendatzen dituzten tarifen arabera, isunaren kontrako errekurtsua bideratzen duen abokatuak ez luke 330€ baino gutxiago kobratu behar (gehi dagokion 56.1€ko BEZa); beraz, **gutxieneko** gastua 386.1€koa litzateke. Legeak berak berehalako ordainketa eginez gero zigorrari %50eko deskontua ezartzen diola kontuan hartuta, 500€ko isuna 250€tan geldituko da. Ondorioz, bi "aukera" ditugu: batetik, isuna berehala kitatu eta 250€ ordaindu; edo, bestetik, errekurtsua jarri, irabazi eta abokatuari 386.1€ ordaindu. Horrela, bada, pertsona gutxi jarriko dio errekurtsua horrelako Arau-hauste Arin bati, eta horiek izango dira guztietan ohikoenak.

Beste alde batetik, proposatzen diren isunen zenbatekoak ikusirik, praktikan, arrazoi berengatik falta-epaiketa baten ondorioz normalean ordaindu beharko litzatekeena baino zigor ekonomiko handiagoak ordaindu beharko dira. “Prozedura administratibo” hutsa, errepresio ekonomikoa, “txuria”, atxiloketa eta epaiketekin alderatuz gero ikustarazten zailagoa, eta, horrenbestez, salatzen zailagoa. Gainera, zeharo desmobilizatzailea, are gehiago gabezia ekonomikoko garaiotan.

Eta, azkenik, arbitrariotasuna azpimarratu behar da, Hiritarren Segurtasunerako Legearen aurreproiektuak jasotako arau-hauste askok ez baitute defiri argirik. Hasteko, “hiritarren segurtasuna” terminoaren defiri bera da zalantzarikoa; eta defiri hori, hain zuzen, bereziki harro agertzen du aurreproiektuak (letra lodia eta maiuskulak jatorrizko testuarenak dira):

**1. SE TRATA DE LA PRIMERA DEFINICIÓN DE LA “SEGURIDAD CIUDADANA” CONTENIDA EN UN TEXTO NORMATIVO (frente al antiguo concepto difuso de “orden público”)**

*La seguridad ciudadana es una garantía de que los derechos y libertades reconocidos y amparados por las constituciones democráticas puedan ser ejercidos libremente por la ciudadanía y no meras declaraciones formales carentes de eficacia jurídica. En este sentido, la seguridad ciudadana se configura como uno de los elementos esenciales del Estado de Derecho.*

Guk, behintzat, ez dugu paragrafo horretan inolako definizio zehatzik topatu. Eta berebiziko garrantzia du horrek, izan ere, hor aipatzen den arau-haustea Lege-aurreproiektuak behin eta berriz eta hamaika modutan zigortzen du. Susmoa dugu zehaztugabetasun hori ez ote den nahita egindakoa. Hainbeste zehaztugabetasunen aurrean, pentsa liteke pertsona bat akusatzeko eta zigortu nahi izateko portaera zehatzak, gutxienez, ezinbestean egon beharko dutela dokumentatuak, nolabait “frogatuak”, bideoen, lekukoaren edo besteren bitartez. Aurreproiektuak zigor edo zehapen deritzon atalean jasotzen duenaren arabera, estatuaren segurtasunerako indarretako kideen esanek “balio frogagarria izango dute” (epaitegietan orain arte ohikoa izan den bezala, esan behar da. Berria okerragoa izanagatik, ez dezagun aurrekoa ontzat hartu).

Testuan aurrera egin ahala hau irakurri dezakegu:

*Askatasuna eta segurtasuna dira gizarte demokratiko aurreratu bat modu egokian funtzionatzeko oinarritzko binomioa, segurtasuna eskubideak eta askatasunak betetzeko zerbitzura dagoen tresna*

izanik, eta ez helburua.

Zalantzan jartzen dugu hori, besteak beste, jarraian azalduko ditugun adibideak ikusi eta gero.

## Arau-hauste motak

Aurreproiektuak hiru arau-hauste maila bereizten ditu, eta haietariko bakoitzarentzat zenbateko tarte bana ezartzen ditu zehapen modura: arau-hauste oso larriak (OL), 30.001-600.000 € arteko isuna; arau-hauste larriak (L), 601-30.000 € arteko isuna; eta, azkenik, arau-hauste arinak (A), 100-600 € artekoa. Arau-hauste mota bakoitzaren barruan, artikuluen bitartez zehazten dira zigortu beharreko portaera motak. Oso larrien kasuan, 4 portaera; larrien kasuan, 24; eta arinen kasuan, berriz, 17. Guztira 45. Edonola ere, lerro hauetan proposatzen dugun azterketak beste banaketa mota bat hartzen du oinarritzat:

### a) Azken urteotan garatutako protesta zein mobilizazio moduen kontrako "ad hoc" legeria.

Artikuluak banan-banan erreparasatuz gero, nekez gerta daiteke hainbatek proiektu honi eman dion izenarekin bat ez etortzea: Barailaren Legea. Azken fi izendapen horren bitartez salatzen da Legearen helburua protesta soziala isilaraztea baino ez dela; bereziki, estatu espainolean azken urteotan herri mugimendua garatuz joan den protesta moduak isilarazteko asmoa. Azter ditzagun zenbait artikulu, eta lotu ditzagun mugimendu sozial batzuen praktika zehatzekin.

<p>2013ko azaroaren 23an, Greenpeace elkarteak 315 m<sup>2</sup>-ko pankarta bat jarri zuen Madrilgo batean <sup>5</sup>: Ekintza honen bitartez, Greenpeacek bere gaitzespena adierazten die protesta baketsuen kontrako kriminalizazio saiakeriei. Aurreproiektua bere osotasunean kritikatzeari gain, Greenpeacek zalantzarik gabe uste zuen zenbait artikulu zuzenean elkartearen jardunbidearen kontra ari zirela. Greenpeace, eta, halaber, jardun-tresnatzat ekintza zuzenak, ikusgarriak, mediatikoak, desobedienteak... darabiltzaten pertsona zein mugimendu guztiei zuzendua.</p>	<p><i>(arau-hauste OL, 1. art) Las reuniones o manifestaciones no comunicadas o prohibidas en infraestructuras o instalaciones en las que se presten servicios básicos para la comunidad (...) y la interferencia ilícita u obstrucción en su funcionamiento (...).</i></p>
<p>Zenbait erakunderen aurrean egindako mobilizazioek, hala nola Diputatuen Kongresuan edota Kataluniako Parlamentuan, erantzun sozial zabala eta oihartzun mediatiko handia lortu dute. Horrez gain, errepresio polizial eta kriminalizazio kanpaina bereziki bortitzak ere jasan dituzte.</p>	<p><i>(arau-hauste A, 15. art) El escalamiento de edifi de organismos o instituciones públicas o de interés histórico-artístico sin la debida autorización y la precipitación o lanzamiento desde los mismos, sin la debida autorización.</i></p>

5 <http://m.greenpeace.org/espana/es/high/news/2013/Noviembre/Accion-Activistas-de-Greenpeace-despliegan-una-pancarta-de-315-m2-en-el-Edificio-Espana-con-el-lema-No-a-la-LeyAntiProtesta/>.

<p>Etxegabetzeen kontrako plataformak indar handiz sortu dira azken urteotan. Haien mobilizazio modu nagusia izan da husteraz zihozten etxebizitzaren aurrean kontzentrazioak egitea, agindua gauzatzea eragozteko, eta lortu ere lortu izan dute hainbat aldiz, baita Euskal Herrian ere. Hemen, lehendik ere egin izan dira antzeko ekintzak, adibidez, AHTaren lanetarako lurren desjabetzeak eragozten saiatzeko</p>	<p>(arau-hauste L, 4. art) <i>Los actos de obstrucción que pretendan impedir a cualquier autoridad, empleado público o corporación oficial el ejercicio legítimo de sus funciones, el cumplimiento o la ejecución de acuerdos o resoluciones administrativas o judiciales (...).</i></p>
<p>Teknologia berriek jazarpen polizialaren aurkako salaketa forma berriak ahalbidetu dituzte. Hala nola, kamera digital edo telefono mugikorrek oldarraldi polizialen, tratatu txarren eta legez kanpoko jokamoldeen irudiak jasotzea eta irudi horiek sarean zabaltzea. Lehen ezkutuan geratzen zena orain ageriko bihurtu da, beraz. Horrek guztiak eragin zuzena izan du eztabaida politikoan eta hainbat estatuk nahiz administrazioek duten biolentziaren monopolioaren erabilerari buruz gizarateak duen iritzian. Euskal Herrian, ziur aski, adibide esanguratsuen herri harresiena izan da.</p>	<p>(arau-hauste L, 4. art) <i>(...) el uso de imágenes o datos personales o profesionales de autoridades o miembros de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad que pueda poner en peligro la seguridad personal o familiar de los agentes, de instalaciones protegidas o en riesgo el éxito de la operación. (Azpimarratu behar dira hipotesi kopuru handia, horien zehaztasun falta... eta gogora dezagun poliziak eta ez beste inork zehaztuko dituela horiek denak).</i></p>
<p>Hainbat mugimenduk erabilitako askotariko ekintza desobedienteek gora egin dute azken urteotan. Bereziki erresistentzia pasiboan oinarritutako eserialdiak. Herri harresietan, egoitza instituzionalak blokeatzeko, etxegabetzeetan funtzionarioen jarduna oztopatzeko, etab.</p>	<p>(arau-hauste L, 6. art) <i>La desobediencia o la resistencia a la autoridad o a sus agentes en el ejercicio de sus funciones, cuando no sean constitutivas de delito, así como la negativa a identificarse a requerimiento de la autoridad o de sus agentes o la alegación de datos falsos o inexactos en los procesos de identificación.</i></p>
<p>Modu berean, mezu propioak, diskurtsoak eta deialdiak zabaltzeko aukera bermatu dute sare sozialek. Berezko baliabideen bitartez zabaltzeko eta bertsio ofizialarekiko menpekotasuna gaitzetea lortu dute.</p>	



<p>Legeak adierazpen askatasuna zigortzen du, eta ustezko delituen interpretazioa eta sailkapen poliziaren esku uzten du.</p>	<p>(arau-hauste L,4. art): <i>Las manifestaciones públicas efectuadas a través de cualquier medio de difusión cuya finalidad sean las injurias o calumnias a las instituciones públicas, autoridades, agentes de la autoridad o empleados públicos (...).</i></p>
<p>E-posta edo twitter bidez birbidalitako deialdi baten hedapen hutsa ere zigortzen du. Horrela, bada, sortzen den babesgabetasuna bereziki larria da berriz ere</p>	<p>30. art, 3.atala: <i>Asimismo, aun no habiendo suscrito o presentado la comunicación también se considerarán organizadores o promotores quienes de hecho las presidan, dirijan o ejerzan actos semejantes, o quienes por publicaciones o declaraciones de convocatoria de las mismas, por las manifestaciones orales o escritas que en ellas se difundan, por los lemas, banderas u otros signos que ostenten o por cualesquiera otros hechos pueda determinarse razonablemente que son directores de aquellas</i></p>

## b) Instituzioen, ordezkari politikoen eta poliziaren gotortzea

Instituzioei buruz eta horiek ordezkatzeko dituzten alderdi politikoei buruz (eta modu apalagoan poliziarri buruz ere) hiritarrek duten iritzia nabarmen egin du okerrera. Horrela, CISEn datuen bilakaera oso argigarria da. Gizartearen baitan egiten diren mobilizazio-ekimenek ere iritzi horren aldaketa adierazten dute: instituzioen oztopatze saiakerak, alderdien egoitzetan edo politikarien etxebizitzan aurrean egindako escracheak, jazarpen poliziala salatze dinamikak, bai polizia ororen identifikatzea galdatzeko bai gomazko balen erabilera debekatzeko.

Testu osoan nabarmena da instituzio, alderdi, ordezkari politiko edo poliziak gotortzeko nahia, mobilizazioen aurrean, haien lanaren fiskalizazioan edota kritika hutsaren aurrean. Gogoratu dezagun lehen aipatu artikulua, honakoa zigortzen baitu: (arau-hauste L, 2. art) *La perturbación de la seguridad ciudadana que se produzca con ocasión de reuniones frente a las sedes del Congreso de los diputados, el Senado y las Asambleas Legislativas de las Comunidades Autónomas.* Baita arau-hauste L, 4. artikulua ere zehaztapen eskasa ere, ekintza erabat subjektiboak zigortzen dituena —poliziak erabakiko dituzten momentuan bertan— adibidez: *las faltas de respeto y consideración cuyo destinatario sea un miembro de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad en el ejercicio de sus funciones de protección de la seguridad, cuando estas conductas no sea constitutivas de infracción penal.*

### c) Salataria ez izatea, zigortua

Garrantzi handiko beste berritasun bat arau-hauste larri gisa sailkatutako 15. artikulua jasotzen du: *La falta de colaboración con las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad en la averiguación de delitos o en la prevención de acciones que puedan poner en riesgo la seguridad ciudadana en los supuestos previstos en el artículo 7*. Bestela esanda, zelatari hutsak izan behar dugu.

### d) Disidentzi klasista eta arrazistaren zerga

Ezbairik gabe, aurreproiektu hau, arestian esandako guztiaz gain, fondoak biltzeko bide ezin hobeza izan daiteke. Dirua ekarriko duten arau-haustek dira, bitartekaririk gabeko prozedura bizkorren bidez, gainera, eta kode penalaz zigortuta ezarritakoak baino kopuru handiagoan.

*Disidentziaren zerga* ez mailakako horrek gizarte-injustizian sakonduko du, gutxienez bi modutan. Hasteko, arraildura ekonomikoa: zenbat eta diru gutxiago izan, orduan eta zailtasun gehiago protestatu eta mobilizatzeko. Bigarrenik, era arrazista batean. Bigarrenik, era arrazista batean. Lege berriak nazioarteko erakunde guztiek baztertzen duten ekintza bat legeztatzen du, etorkinak, mugara iritsi bezain laster, beren sorlekuetara bueltan bidaltzea, alegia.

«Disposición adicional décima. Régimen especial de Ceuta y Melilla» izenekoaren bidez, Ceuta eta Melillako muga taldeka eta era irregularrean gaintzen saiatzen atzemandako migratzaileak kanporatu ahalko dituzte, “Espainiara ilegalki sartzea eragozteko”. Neurri horren bidez hainbat eskubide bertan behera utzi nahi dituzte, hala nola, asilo politikoa eskatzeko, babes judizialerako eta osasun-laguntzarako eskubidea eta agiri ofizialik gabeko migratzaileak laguntzeko beste edozein eskubide.

### Ondorioak: gizarte eredu are injustuago bat inposatzeko tresna berri bat

Laburbilduz, oinarrizko eskubide zibil eta politikoen ukazioa handituko duen lege bat da; poliziarri are botere, eskumen eta zigorgabetasun gehiago emango dizkiona; delitu berriak nahieran ezarriko dituena; horiek zehatz defizite gabe utzi eta erabateko babesgabetasuna sortuko duena; gogorrago baina ezkutuan zigortuko duena. Disidentzia ororen aurkako arma hedakor eta trinko bat; kalean, lehen lerroan eta egunero nahi adina erabiltzeko diseinatua. Gure jarrerak, gure borroka moldeak eta gizarte eraikuntza guztiz baldintzatzeko diseinatua.

Lege honek gizarte eredu zehatz bat bortizki inposatzeko proiektu orokor bati erantzuten dio. Gutxienez Mendebalde osoari eragingo dion paradigma aldaketa bat: Estatu Soziala deituriko hartatik, zeina ez baitzen sekula gure etxe eta kaleetara iritsi, Estatu Penalera, zeinak ez baitu oraino guztiz alde egin, ezta azken 40 urteetan ere. Gizarte-injustizia handiagoa, aberastasunen banaketan desoreka handiagoa. Alde batetik hezkuntza, osasuna, etxebizitza, gizarte-segurantza eta gisako oinarrizko eskubiderik gabe uzten gaituzte. Bestetik, proiektu bortiz hau inposatu bitartean, beharrezko “elkarbizitza baketsua” bermatze aldera, azken hamarkadetan terrorismoaren aitzakiaz ezarritako salbuespen neurriei eusten diete —bost axola egun bortizkeria politikoa antolatuta bakarria estatuarena baino ez izatea—, eta gainera berriak garatzen dituzte, aurreproiektu hau kasu.

Oximoron hutsa dirudi, baina politika errepresibo honek izen bat du: salbuespen politika iraunkorra. Eta Herritarren Segurtasun Legearen aurreproiektua armetako bat besterik ez da armategi zabalago batean: zigor kodearen erreforma, tasen legea, lege eta auzitegi antiterroristak, segurtasun pribaturako legea... Ez dugu atal honetan gehiago luzatu nahi, baina ezinbestekoa da Zigor Kode berrian terrorismo kontzeptuaren inguruan zabaltzen diren irakurketa aukera berriei buruz hitz pare bat esatea. Izan ere, Zigor Kode berriaren arabera, modu errazean eta malguan terrorismo kontzeptua norbanakoei zein taldeei egozteko aukera

zabaltzen da. Zigor Kode honi eginiko emendakinen artean azpimarratu nahiko genuke, adibidez, 571. artikuluari eginikoa. Kontuan izan behar da artikulua horretan terrorismo delitutzat jotzen direla, besteak beste, hilketa, abortua, kalteak, zauriak edota ordenu publikoaren aurkako delituak, beti ere jokabide horiek jendartearen baitan larderia eta beldur larria eragiten dutenean eta bake soziala aztoratzen dutenean. Bide beretik, edozein autoritateren lana legez kanpoko bideak erabiliz okertzen edota baldintzatzen duten jarduerak zigortuko dira, baita erakunde politiko, sozial eta ekonomikoen funtzionamendua oztopatzen dutenak ere. Horrela, terrorismo kontzeptuaren definizio hori oso zabala da, eta ordena publikoa aldatzea helburu duten mugimendu sozialen eguneroko jarduna zigortzea ere ekar lezake.

Horri dagokionez, alde bateko zein besteko elite politikoak bat datoz. Are gehiago, Lege hau diputatuaren kongresuan onartzeko azken fasean, oposizioko agente politikoetako ordezkari guztiek aurka bozkatu zuten, nahiz eta, zenbaitetan, testuko aginduak gehiago gogortzea proposatu. Adibidez: — *Enmienda núm. 179, al artículo 37, apartado 4, que subsume la enmienda núm. 76 (GV-EAJ-PNV), se aprueba por mayoría con la siguiente redacción transaccional. «4. Las faltas de respeto y consideración cuyo destinatario sea un miembro de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad en el ejercicio de sus funciones de protección de la seguridad, cuando estas conductas no sean constitutivas de infracción penal».*

Botereak eremu publikoa blindatu egin nahi du, herritarrok bertan ustekabean agertzeko aukera ekiditea helburu. Datozen garaietan (nekez) biziko gareneko gizarte ereduak berak eta soilik berak hautatuko duela are irmokiago ziurtatu nahi du botereak. Eskubide zibil eta politikorik ezean —besteak beste, manifestatzeko eskubidea, adierazpen- eta antolatze-askatasuna, parte hartze politikorako eskubidea—, botereek bahiturik dauzkate bidegabea deritzogunaren aurrean protestatzeko eta errealitate justuak eta bizigarriak eraikitze ditugun eskubideak eta gaitasunak. Ez dezagun onartu. Aldarrika ditzagun gure eskubideak eta, batez ere, jar ditzagun guztion artean egunero eta era masiboan praktikatu ahal izateko moduko baliabideak, modu horretan errepresioa ezinezko egingo baitugu.